



ERNAI “PREKARITATEA INPOSATU NAHI DUTE GOBERNANTZA MODU GISA”

Ernaik Oraina Borrokatzeko Koordinadak, Euskal Herria zerumuga berri baterantz liburuxka kaleratu du. Lur Albizu Etxetxipia (Artazu, Nafarroa, 1993) eta Asier Zamorano Arri (Algorta, Bizkaia, 1993) batu ditugu. Liburuxka “inkonformismo garrasia” dela diote, *Euskal Herrian Bizi* dinamikaren markoa izan asmo duena. Pare bat urterako lanketa gisa ikusten dute.



Lander Arbelaiz Mixelena

@larbelaiz

ARGAZIAK: DANI BLANCO

Amaiera aldera diozue: “Gure bizitza hitz batekin definitu beharko bagenu, prekarietatea litzateke aukera egokiena, bizitza esparru guztiak zeharkatzen dituen elementu zentrala da”. Hainbestera al da?

L. Albizu: Hori txostenaren laburpenetako bat da: bizi prekarietatearen ideia. Prekarietatea lanari lotuta bakarrik ulertzen dugu askotan, baina gure bizitzaren alde guztiak zeharkatzen ditu. Gure bizi proiektua garatzeko ditugun zailtasunak ere badira prekarietatea.

A. Zamorano: Helduleku eza edo eze-gonkortasunaren ideiarekin lotzen dugu. Aisiaren eremuan, harremanetan, emantzipazioan eta abarretan ezintasuna dugu bizi proiektu bat irudikatzeko, horrekin lotu nahi dugu.

Hasieran aztertzen dituzue “Kapitalaren Europa”, politika neoliberalak, Espainiako Estatuaren jarrerak eta “eusko labela duten politika atzerakoia”. Indartsu ikusten duzue eredu politiko hegemonikoa?

A. Zamorano: Bai. Kapitalismoaren munstro erraldoia dugu aurrean, neoliberalismoaren fase basatian. Estatu batzuk inoiz baino ahulagoak eta otzangoak dira elite ekonomiko eta finantzarioarekiko. Hala ere, uste dugu bide propioak eraiki daitezkeela txikitik planteatuta, lokaletik. Tokiko ereduak garatu behar dugu herrigintza ikuspegitik. Abaniko zabala irekitzen du honek alternatibak eraikiz munstroari aurre egiteko. Herri egitasmoa edo herri proiektua eraiki behar dugu. Bidea

oso zaila eta iluna izango da, baina gure ustez itxaropentsua ere bai, aukera askorekin.

“Azken mendeetan beren gurasoak baino okerrago bizitzera kondenatu nahi gaituzten lehen belaunaldia gara” edo “aurpegira barre” egiten ari zaizkizuela diozue. Halere, kosta egiten al da gazteria kalera ateratzea?

L. Albizu: Alde batetik, paradigma aldaketa bizitzea tokatu zaigu. Gezur handi batean hezi gaituzte. Prekarietatea ez da orain etorri, baina gauza asko *klak* egiten hasi dira. Neoliberalismoaren fase honetan apenas dago heldulekurik. Eta gazteak kalera ateratzeaz asko hitz egiten da, heldu askok diote ez dituztela kalean gazteak ikusten, nahiz eta ikusten dituztenean ez duten ezer esaten. Gazteriari lotutako klaxe hori beti hor da, hori apurtu behar dugu ez baita egia eta etsipenerako joera eragin dezakeelako. Demografikoki ere begiratu behar da, egun askoz gutxiago baikara gazteak kopurutan. Beste gauza bat da zein klabetan ateratzen garen kalera. Azken aldiko mobilizazioak oso gazteak izaten ari dira, antolakuntzak barne. Mugimendu feministaren deialdiak adibidez oso gazteak dira.

Zer gertatzen da jendea masiboki ez kalera ateratzeko?

A. Zamorano: Batetik, analizatu behar da neoliberalismoak bultzatua gazteok pairatu dugun indibidualismo prozesu izugarria. Egun ez dago gazte sare bat, subjektu bat egituratuta, mugimendu feminista egon daitekeen gisan. Urteetan landu dute eta orain fruituak era masibo batean ematen ari da. Gazteen esparruan ez daukagu halako lanketarik egina. Gure erronketako bat hortik doa. Bestetik, garaiak aldatzen doaz, testuingurua eta joerak aldatzen doaz, eta ikasi behar dugu moldeak, diskurtsoak eta praktikak garaiari egokitzen gazteria kalera ateratzeko.

Krisia diozue politika neoliberalak aplikatzeko iruzurra dela. Pribatizazioak egiten ari direnekin kritiko zarete. Nola defendatu esparruok? Osasuna, hezkuntza edo etxebizitzaren esparruetan Ernaik egin dako ekimen batzuk aipatzerik bai?

A. Zamorano: Egia esan, autokritika egitea garrantzitsua da. Nire ustez, azken urteetan ez diogu egoera gordin

honi heldu eskatzen zuen indar eta iniziatibarekin. Hezkuntzaren esparruan gauza gutxi egin dugu azken aldian. Aldi berean, etxebizitzaren esparruan egin diren esperientzia interesgarri ugari etortzen zaizkit burura, maila lokalekoak gehienak, Gasteizen eta Donostian, ez dutenak horrenbesteko oihartzunik izan. Eta enplegu politikari batez ere beselako espazioetatik lan eginez erantzun diegu, talde prekarioekin lan eginez eta beste. Orain hasi gara diskurtso egitura-tuagoa jendarteratzen.

Nola bizi duzue borroka feministaren sendotzea?

L. Albizu: Ernai sortzeko *ZukGua* prozesuan oinarriez eztabaidatu genuen 2013an, eta gure arteko borroka gehiago edo gutxiagorekin, erabaki genuen independentzia, sozialismoa eta feminismoa izango zirela helburu estrategikoak. Argi islatzen du horrek zer nola aldatu den gauza, zein lehentasun ematen zaion borroka feministari egun. Urrats feministak egiten ari gara barne mailan. Borroka feministaren eragina oso handia da, eta esango nuke identitate militantean aldaketa handia ekarri duela, batez ere emakumeontzat, identitate feministatik lotzen baikara borrokara emakume asko.

Eguneroko prekarietateak, parte-hartze politikorako denbora faltak eta bestek beldurak eragiten dituela irakurri dizuet. Nondik ikusten duzue bidea?

A. Zamorano: Zaila da. Argi eduki behar dugu eguneroko praktikan dagoela gaikoa, ez dago kristoren jendetza mugituko duen dinamika magikorik. Ereku ugaritako gazte sektoreak aktibatzea da asmoa, ereku lokalean gazteen problematika hurbilenetatik eutsiz gaiei. Gure txikitasunetik, *Euskal Herrian Bizi* dinamika honek herri eta gazte sektoreetan akuilu izan nahi du. Harreman sarea zabaltzen joan nahi dugu gazte problematika erdigunean jartzeko, ziurgabetasun egoera honetan mahai gainean ziurtasunak jartzeko. Horietako bat da hemen gazteriak baduela gaitasuna gauzak beste modu batean kudeatzeko eta ahots propioa izateko.

L. Albizu: Kolektibotasuna azpimarrituko nuke. Sarerik ez den leketan nola eraiki hauek? Nola egin aurre fragmentazioari? Indibidualizazioarako joerak min handia egin digu.

Eskola elitearen zerbitzura dagoela diozue. Zertan islatzen da hori?

L. Albizu: Fabrika formako eskola horietan sistema kapitalistaren zerbitzura egongo den ikasleria produzitzea bilatzen da. Unibertsitatean, azken urteetan eman diren erreformekin gauza bera: Boloniako prozesuarekin ikasketen merkantilizazioa bultzatu zuten, tasak igo, unibertsitatea elitearentzat egin geroz eta gehiago, masterrak ia derrigorrezko egin... Lan merkatura zuzendutako prozesua da hezkuntza. Erreforme lotuta, LOMCEk ikasleen espainolizazioan sakontzen du, gure curriculumak ez da hemen erabakitzen, errebalidek geroz eta jende gehiago kanporatzen dute. Lanbide heziketan ere erreformak egiten ari dira, esku lan merkea sortzeko.

Zuen hitzetan eusko labela jarri dioten iruzurra da Heziberri 2020 plana.

A. Zamorano: Nahiz eta hitzak aldatu, gauza beraren inguruan ari dira. Beren politiketan ikusten da. Hezkuntzari lotuta komunitatearen tradizioa oso errota dago hemen, eta hezkuntza komunitateak planteatzen dituen beharren aurrean, LOMCEren kopia den Heziberri aurkeztuz eta lau hitz aldatuta erantzun diote EAEn agintariek. Ez da hori gure herriak duen beharra, kontrakoa baizik. Herri honek hausnarketa sakonagoa behar du gure hezkuntzaren inguruan, orain arte daukaguna eraldatzen jarraitzeko. Bide luzea egin dugu, ikastolena adibidez. Egun, publiko eta pribatuaren inguruan dagoen eztabaidan sakondu behar dela uste dugu, eta ez kontrakoa egin. Guztiz errefusatzeko dugu Heziberri eta aldarrikatzeko dugu ikasleak kalea atera behar direla plan hauen aurka.

Azken urteetan hartutako erabaki politiko onduz, gazteen egoera larria dela salatzen duzue: soldata baxuagoak, langabezia tasa altuagoak, enplegua lortzeko zailtasunak... nora doa hau?

L. Albizu: Ez dakigu nora doan. Enpleguari lotuta, pobrezia tasetan mugitzen gara gazteok eta gainera krisiaren belaunaldia gara. Ez dugu ezagutu krisiaren aurreko egoera. Ez diot garai hartara itzuli behar dugula, baizik eta ez ditugula ezagutu lanarekin lotutako eskubideak, lan erreformen seme-alabak garela. Joerak bera izaten jarraituko du, baina horri borrokarako beste modu batzuk eskaini behar dizkiogu. Askotan



saldutxo nahi digute grebek eta mobilizazioek ez dutela ezertarako balio, baina azken hilabeteetan ikusi ditugu langileek garaipen batzuk. Horrekin jarraitu behar dugu. Sindikatuarekin atxikimendu txikia duen belaunaldikoa gara, eta erreforme aurre egitea da gure erronka.

A. Zamorano: Prekarietatea besterik gabe datorren zerbait bezala lotu izan da, baina pixkana fasea luzatzen doa. "Bizpahiru urteko kontratu prekarioa eta gero lan finkoa izango duzu ziur". Gezur hori saldu izan digute. Hori luzatzen doa. Egun bost, sei, zortzi, hamar urte arte prekarioa zara. Pixkana

irudikatzen doa eliteen politika egiteko modua zein izango den: prekarizazioa inposatu nahi dute gobernantza moduan. "Nola gobernatuko ditugu herriak? Prekarietatearen bidez". Lan baldintzak kaskartu eta helduleku gutxiago irudikatu jendearentzat. Egoera ez bada aldatzen, gure bizitzetan prekarietate kronifikatua sartu nahi dute.

L. Albizu: Mentalki ere normalizatua izatera heldu daiteke. Lagun arteko elkarrizketetan lana izatea, nahiz eta soldata miserable batekin izan, ia pribilegio gisa ulertzen da. Hor txoke handia dago belaunaldien artean.



**Hego Euskal Herriko batz besteko soldata gordina 14 pagako 1.926 euro da, 25 urtetik behera, ordea, batz beste 14 pagako 895 euro da. Gazte asko pobrezia-
ren mugatik behera dira. Hala ere, zuek uste, pobre gisa ikusten dutela bere burua egoera horretan dauden milaka eta milaka gaztek?**

L. Albizu: Ez. Zure burua pobre gisa ikustea beste prozesu bat da eta ez naiz azaltzeko gai. 895 euroko soldata ez dugu pobre gisa hartzen. Nire amak eta aitak hori pobre baten soldata dela ulertzen dute, baina guk ez. Iruditzen zaigu 1.000 eurotik gertu dagoela, bizi gaitez-

keela. Soldata duinak izan ditzaketenei pribilegiatu deitzeko joera dago, hor borrokatzeko asko daukagu.

Emakumeen soldatak gizonezkoenak baino %29 txikiagoak dira Nafarroan, EAEn %24. Bada errua emakumei botatz dienik.

L. Albizu: Pobrezia-aren aurpegi garrantzitsua emakumeona da. Guri lotzen zaizkigun enpleguak askoz prekarioak dira, lan erreproduktiboekin lotuta daude, lan desprestigiatuekin. Legezko proposamenetan zerbait egin behar da soldata arrakala mozteko.

Kalitatezko enplegua sustatu beharrean, formazio kontratu prekarioetara bideratzen dira diru-partidak diozuenez. Langileen Autodefentsa sareetan parte hartzen ari zarete. Zer balorazio egiten duzue?

A. Zamorano: *Glovo* eta halako enpresa batzuk agertu izana, gobernantza formaren parte da. Lan oso prekarioak dira. Gainera esango dizute zuk zure bizitza gobernatzeko modua dela eta, ez da batere horrela. Prekarizazio hori muturre-ra eramateko gezurrezko lanak dira, eta gainera autonomo zara, zuk ordaindu behar duzu gizarte segurantzia eta beste. Horrelako lanek deitu dute arreta, muturrekoak direlako. Prekarietatean aurkako taldeetan Ernaiko kideok aktiboki parte hartzen dugu, prekarietatearen aurka borrokatzea estrategikoa delako. Ez delako enpleguarekin lotutako gauza bat bakarrik, gure bizitzak zeharkatzen ditu. Espazio horiek sortzea, gazte langileen arteko babes mekanismoak sortzea, ezinbestekoa da kontuan hartuta gaur egun ez dugula bermerik esateko ez dela errepikatuko alboko lantokian. Zure arazo indibiduala kolektibizatze-ko balio dute, baita subjektua berrosatzen jarraitzeko ere.

Europa Iparraldeko gazteak 20 urterekin emantzipatzen dira batz beste, Europan 26 urterekin, Hego Euskal Herrian 30 urterekin. Nola konpondu hau?

L. Albizu: Zirkulu biziaria da. 885 euroko soldatarekin nola lortu etengabe igotzen ari den alokairua eta gastuak ordaintzea? Euskal Herriko hiriburuetan espekulazio horrek ez du mugarik, ia ezinezko egiten da gurasoenetik ateratzea. Horri gehitu ikastaldia luzatzen ari dela, prozesua askoz luzeagoa dela eta lan batzuetan masterra eskatzen dizutela. Dena berandutzen eta garestitzen doa, eta horrela emantzipatzea oso zaila da.

EAE eta Nafarroako Etxebizitza Legeak Madrilera atzera bota ditu. Ez al zaizue iruditzen pedagogia independentistarako erregaia direla halako gertaerak, eta ez garelako gehiegi lantzen ari?

L. Albizu: Nafarroako egoeraz hitz egingo dut. Bertan behera utzita dago Etxebizitza Legea beste 17rekin batera. Neurri batzuk uzkurak dira, baina aldi berean honek dio bankuei etxe hutsak desjabetu ahal zaizkiela. Jakinik azken

urteetan etxegabetzen kontura sentibilizazioa zabaldu dela, nola egin tekla hori jotzeko burujabetza prozesuan? Pedagogia independentistako beharrezkoa da, gainera, beste hamaika legerekin ere lotzea. Gainditu gabeko asignatura da azken urteetan, askoz gehiago egin genezake. Askotan oso objektiboak diren elementuekin lotzen dugu, baina nik uste elementu subjektibo piloa falta zaizkigula. Pizgarri izan daitezkeen kontuak.

Liburuxkan agintean “erregimen ustela” dagoela aipatzen duzue pare bat aldiz. EAJk duen botere instituzionala kontutan hartuta, erregimenaren parte hartzen duzue?

A. Zamorano: Bai, guztiz. Eliteek erabaki eta planifikatzen dutena eskala guztietan aplikatzen digute, Bruselatik hasi, estatuetatik igaro eta bertako agintarientaraino. EAJ horren adierazle nagusia da, EAEn bederen. Bere politikak sare klientelarra elikatu eta etekinak irabazteko bideratuta daude bakarrik: etxebizitza, enplegua, hezkuntza... Ustelen erregimena diogunean, horri egiten diogu erreferentzia. Gutxi batzuen mesedetan egiten diren politikak, gehiengoaren kaltetan.

Horrek talkarik egiten al du EAJri eskua luzatzeko EH Bilduren estratergiarekin?

A. Zamorano: Argi dugu prozesu politiko orokorra oso korapilatsua eta kontraesanez betea dela. Prozesua azkartzeko palanka izan daitezkeen pauso batzuk EAJrekin egitea *txokantea* izan daiteke aipatu ditugun elementu batzuekin. Hala ere, nire ustez hemen planteatzen ditugun kontu gehienak borroka sozialen bidez lortuko dira, eta gazteak kalera ateraz. Hor ez da EAJ-EH Bildu logika edo dena delakoa sartzen. Gurea gazteria kalera ateratzeko proposamena da, bere bizitza indibidualaren aurrean koordenada batzuk mahai gainean jartzeko. Bide horretan kontraesan eta topeak ikusiko ditugu. Gakoa da nola asmatu tekla egokiekin, herri mugimendutik presionatzeko eta prozesuak askoz termino aurrerakoi, lokal eta sendagoetan aurrera egin dezan bultzatzeko. EAJk erabaki batzuk hartzen baditu, har ditzala baldintzatuta dagoelako.

L. Albizu: Nafarroan, adibidez, Geroa Bain EAJ dago, baina nola egin baldin-

tzatzeko? Batzuetan lortzen da eta besteetan ez. Urteetan egon dira kontraesan batzuk, adibidez, AHT edo Aroztegiaren gaiarekin. EAJk aurrera jo du. Nola baldintzatu EAJk ez hori egitea? Kontua da akordioa hor dagoela, eta agian ez dela hain argia EAJrekiko, Geroa Bai duelako izena, baina hor daude.

» **ASIER ZAMORANO:**

“EAJren politikak sare klientelarra elikatu eta etekinak irabazteko bideratuta daude bakarrik”

» **LUR ALBIZU:**

“Borroka feministaren eragina oso handia da, identitate feministatik lotzen gara borrokara emakume asko”

A. Zamorano: Adibide bat jartzearren, erraustegiaren aurkako borrokan helburua da erraustegia ez eraikitzea. Borroka oso esplizitua. Baina herri mugimenduen eta guk eskaintzen dugun gazte mugimenduen lana ezin da hori interpelatzera mugatu. Lortu behar dugu politika instituzionalean beste erremediorik ez izatea erabaki hori hartzea baino. Batzuetan erotzen baikara herri mugimenduek instituzioak baldintzatu behar dituztela, herri mugimendu eta instituzioen arteko dialektikan sartzen gara. Ezin da hori bakarrik izan. Herri mugimenduek prozesu propioa egin behar dute eta azkenean instituzioetatik beste erremediorik ez izatea guk nahi ditugun politika batzuk hartzeko.

Non ikusten dituzue bide-lagunak?

L. Albizu: Mobilizazio zikloaz hainbeste hitz egiteak klixe bat dirudi, baina hainbat protesta gizartea ezkerrean era-

maten ari dira. Greba feminista, pentiodunak edo Altsasuko gazteen aldeko olatua gizartea politizatzen ari direla iruditzen zait, aldarrikapen oso indartsuekin. Gazte sektoreok eta eragileok horra joan behar dugu.

A. Zamorano: Azken hilabeteetan protestetan problematika propio eta zehatzetatik aktibatu da jendea. Hori garrantzitsua da. Gazte izateagatik badugu problematika berezitu bat, horretan asmatu behar dugu, gazteria sare horiek aktibatu eta kalera ateratzeko. Sektore ezberdinetan aliantzak egitea ere estrategikoa da herri proiektua irudikatzen. Gazteok saiatu gara keinuak egiten beste borrokei.

Ernaik parte hartu zuen Bizitza Da Handiena ekimenean. Zein balorazio egiten duzue?

L. Albizu: Bizitza Da Handiena bezalako ekimenetan sareak sortzea balioan jarri behar da, eragileen artean ematen diren konfuentzia espazioak oso garrantzitsuak dira. Horrez gain, borroka molde berrien esparruan ekarpen garrantzitsua iruditzen zait. Aurten bloke bat okupatu da, iaz Gipuzkoa Zutikek manifestazio bat egin zuen erraustegira zuziz jantzita, aurrekoan kanpaldia. Berritasuna ematen dio. Ikusten da beste ibilbide bat dagoela borroka sozialen loturak sortzera bideratua.

Jarrai duela 40 urte sortu zela landuko duzue. Zein da asmoa?

A. Zamorano: Ziklo oso luzea bizi izan dugu eta faktore ezberdinek ikustarazten digute egoera aldatzen ari dela. Bada garaia etorkizuna beste modu batez proiektatzeko. Duela 40 urte gazte batzuek hartu zuten konpromisoa ikusirik, gaur egungo belaunaldiok ere herri honen askapen prozesuan parte hartu behar dugu. Baliatuz 2019an 40 urte beteko direla Jarrai sortu zela, antolakuntza eta borrokara batzen diren belaunaldi berrien beharra azpimarratu nahi dugu, askapen prozesua muturrera eramateko, baldintzak ere aldatu baitira. Elementu ugari batzen duen dinamika izango da: borroken errepasoa egingo dugu, liburu bat aterako dugu eta Gazte Topagunearekin datorren urteko apirilean aurrera begira jartzeko anbizioa dugu. Milaka gazte, belaunaldi berriak, konprometitzeko eta borrokara batzeko. ■